

**IRUN-HONDARRIBIAK, BORTZIRIEK ETA LAPURDIK EGINDAKO
BERRIKUNTZA BATZUEI BURUZ, TESTU ZAHARRETATIK ABIATURIK**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA:

Arrate Isasa Lizarribar

Euskal Ikasketak, 2019-2020 Ikasturtea

TUTOREA:

Iñaki Camino

Euskal Ikasketak eta Hizkuntzalaritza Saila

LABURPENA

Kokapen berezia dute mugaren alde banatan dauden Irun-Hondarribiak eta Bortziriak alde batetik, eta Lapurdiko hego-mendebaldeak bestetik. Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Lapurditik iritsitako ezaugarriek topo egiten baitute Euskal Herriko eremu honetan.

Ezaguna da hiru eskualde hauek iragan mendeetan izan duten harremana, eta horrek hizkuntzan izan duen eragina. Hortaz, lan honetan eremu honetako hizkerek partekatzen dituzten ezaugarriak aztertuko dira. Zehazki, batera egindako lau berrikuntza aukeratu, eta aurkeztea da helburua. Testu zaharrak garai hartako euskararen isla izan daitezkeenez, jaso diren sermoi eta dotrina, gutun eta agiriak, abiapuntu harturik, XVII. mendetik testuetan ezaugarri hauek izan duten bilakaera aztertu da. Hain zuzen ere, bakoitzaren lehen agerraldia, berrikuntza gertatzeko testuinguru gramatikala, eta geografian izan duten hedadura azaltzea da asmoa, hauek izan baitira berrikuntzat hartzeko kontuan izandako irizpideak.

Fonologian eta izen morfologian ezaugarri bana aztertu da, eta aditz morfologian bi. Hasteko, hiatotako *i* eta *u* bokalen ondoren agertzen diren kontsonante epentetikoei erreparatuko zaie. Euskal Herriko erdiguneko hizkerek egindako berrikuntza hau, hiru eremuetako lehen testuetatik ageri da, eta geroagoko testuetan, maizago agertuko da.

Izen morfologian, absolutiboaren gainean eraikitzen diren erakusleak aztertuko dira. Genitibotik hasi, eta XVIII. mendeko testuetan, kasu gehiagotara, datibo, destinatibo, etab. hedatu da.

Aditz morfologiari dagokionez, lehen silaba galtzen duten aditz laguntzaileak aztertuko dira. Aferesizat har daitezkeen arren, sinkopa deituko zaie, aditz laguntzailea, nagusiaren ondoren joan ohi delako. Ezaugarri hau sistematikoa da eremu osoko testuetan. Azkenik, bipertsonal iragankorren ordezkatzeari landuko da. Datiboa 1. edo 2. pertsona denean, aditz hirupertsonalen sailean **edun*-en adizkiak erabiltzen dira. Berrikuntza hau itxuraz berriena izanik, Lapurdiko XIX. mendeko testuetan bakarrik islatu da. Horregatik, lan dialektologiko sinkronikoak erabili dira berrikuntza hau azaltzeko. Honek izan duen hedadurara, eta Irun-Hondarribian, Bortzirietan eta Lapurdin

fenomeno hau zertan den aztertzea hurbildu nahi izan da; zehazki hirupertsonalen erabilerari eta iraganeko eta pluraleko formei erreparatuko zaie.

Ezaugarri batzuk inguruko hizkeretan ere agertzen direla ikusiko da, baina aztergai den eremuan lehen testuetatik ezaugarri hauek agertzea eta ondorengo mendeetan bilakabide berdina izatea, hiru eskualdeen elkar-eraginarekin lot daiteke.

AURKIBIDEA

1.SARRERA	5
2. IRUN-HONDARRIBIA, BORTZIRIAK ETA LAPURDI	6
3.CORPUSA	7
3.1. TESTUEN FIDAGARRITASUNAZ	9
3.2. TESTU AUKERAKETA	10
4. BERRIKUNTZAK	12
4.1.FONOLOGIA	13
4.1.1 -y- eta -b- epentesiak	13
4.2. IZEN MORFOLOGIA	16
4.2.1. Absolutiboaren gainean eraikitako erakusleak	16
4.3. ADITZ-MORFOLOGIA	20
4.3.1. Adizki sinkopatuak	20
4.3.2 Hirupertsonalen ordezkatzea	22
5. ONDORIOAK	29
BIBLIOGRAFIA	30

1.SARRERA

Lan honen azter-eremua Irun-Hondarribia, Bortziriak, eta Lapurdiko hegomendebaldea dira. Hiru eskualdeetako herritarrek harreman sendoa izan dute iragan mendeetan, eta harreman horretan euskarak leku garrantzitsua izan du. Hortaz, ondorengo ataletan, batasun horrek bertako euskaran izandako eragina aztertuko dut, lanaren muina, eta helburua, hiru eskualde hauek batera egindako lau berrikuntza aurkeztea izanik. Horretarako, testu zaharrak oinarri izan ditut, XVII. mendetik eremu honetan jaso diren gutun, sermoi eta dotrinak.

Lan dialektologiko sinkronikoak ere erabili ditut, ezaugarri hauek egun bertako hizkeretan bizirik baitaude eta hauen hedadura ezagutzeko beharrezkoak izan dira.

Eskualde hauetako euskara ikertu dutenen artean, Bonapartek (1877) XIX. mendean Irun-Hondarribiko euskara nafar-hizkerekin lotu, eta lapurteraren hurbiltasuna sumatzen zela adierazi zuen. Geroagoko ikertzaileek ere, alde batetik, Gipuzkoa eta Nafarroako Bidasoaldeko hizkera hauek (Sagarzazu, 2005; Zelaieta, 2004, 2005), hainbat ezaugarritan batera doazela erakutsi dute, eta bestetik, biek Lapurdi mugakide izanik, bertako eragina ere nabarmendu dute. Mugaz bestalde, Lapurdiko itsasaldera ere iritsi da gehienbat Gipuzkoako eragina.

Hizkera hauek dialektoen sailkapenean izan duten kokapenari dagokionez, Bonapartek lapurtera euskalki beregaintzat proposatu eta bi azpieuskalkitan bereizi zuen: alde batetik *jatorra*, Donibane Lohizune, Sara eta Ainhoako hizkerekin, eta bestetik, azpieuskalki *nahasia*, Arrangoitze inguruko hizkerarekin (Irizar, 1997). Lapurdiko ekialdeko euskara, mendebaldeko behe-nafarreran sailkatu zuen. Egun, Zuazok (2014) nafar-lapurtera proposatu eta bertan sartu ditu Lapurdiko, Nafarroa-Behereko eta Zuberoa ipar-mendebaldeko zenbait hizkera. Bi azpieuskalki bereizi, sartalde eta sortalde, eta hiru hizkera proposatu ditu: Amikuzeko eta Uztaritzeko hizkerak, eta kostatarra. Azken bi hauetan kokatuko litzateke lan honen azter-eremuan sartzen den Lapurdiko hegomendebaldea.

Irun-Hondarribiko eta Bortzirietako hizkerak berriz, iparraldeko goi-nafarreran sartu zituen Bonapartek, lehena Gipuzkoako azpieuskalkian, eta bigarrena Bortzirietakoan (Irizar, 1992). Egun, Zuazok (2014) Irun-Hondarribiko hizkera tarteko

hizkeratzat hartu du, erdialdeko euskararen, nafar-lapurteraren eta nafarreraren artean. Bortziriak berriz, euskara nafarrean, ipar-sartaldeko azpieuskalkian sailkatu ditu.

Lanaren egiturari dagokionez, honela antolatu da: lehenengo atalean, gaineratik bada ere, hiru eskualdeen kokapena eta azken mendeetan izan duten harremana aipatuko da. Jarraian, lanak zein eremu hartzen duen definituko da. Ondoren corpora aurkeztuko da. XVII. mendetik XIX. mende bitartean eskualde hauetan jaso diren testu idatziek osatzen dute corpora. Hauen artean batzuk lanaren oinarri izan dira, eta beste batzuk berriz, osagarri izan dira, eta lanean zehar aipatuko dira. Testu idatziekin lan egiten denean, hauek hizkera horien berri fidagarria emango duten jakitea zaila izaten da, eta arazo honetaz jabeturik, testu zaharren fidagarritasunaz zertxobait jardungo da. Horrekin loturik, corpuseko testuen inguruan datu batzuk emango dira, hauek eragina izan baitute testuak aukeratzeko orduan. Jarraian lanaren atalik luzeena dator. Aukeraturiko lau berrikuntzak zein testuinguru gramatikaletan gertatzen diren eta lehen agerpenetik aurrera, XIX. mendera arte testuetan zein bilakabide izan duten azalduko da. Horrez gain, zein hedadura izan duten ere zehaztuko da. Azkenik, lan honetan ateratako ondorio batzuk azaldu, eta erabilitako bibliografia emango da.

2. IRUN-HONDARRIBIA, BORTZIRIAK ETA LAPURDI

Euskal Herriko ipar-ekialdean kokatzen dira hiru eskualde hauek. Bidasoaldea deritzogun eremuan, alde batetik Gipuzkoako alderdia dugu, eta hau Irun eta Hondarribiak osatzen dute. Nafarroan, Bortzirietatik haratago, Malerreka eta Bertizarana hartzen ditu Bidasoaldeak. Baztan ibaiak Bertizaranatik pasatzean Bidasoa izena hartu, eta hortik Txingudiko badian itsasoratzen deneraino, haren inguruan sortu diren herriek osatzen duten eremuari izena ematen dio (Zelaieta, 2008: 17).

Bidasoaldeko herriek Lapurdirekin muga egiten dute. Irunek Hendaia, Urruña eta Biriatu ditu ondoan, eta Berak eta Etxalarrek, Biriatu, Urruña, Senpere, Sara eta Azkaine dituzte mugakide.

Hizkera hauetan gertatu diren hizkuntz-aldaketak ulertzeko, kokapen geografikoaz gain, hiztun-erkidegoaren iragan sozio-historikoa ezagutzea garrantzitsua da (Camino, 2004: 90). Izan ere, eskualde hauek administratiboki banatuak egoteak ez du eragotzi mugaren alde banatako herritarren arteko harremana. Horien artean,

merkataritza-harremanak nabarmendu behar dira, Irungo ganadu-azoka, esaterako. Bertara, Nafarroako Bidasaldeko eta baita Ipar Euskal Herriko herritarrak hurbildu izan dira. Kontrabando lanetan ere, Berak eta Etxalarrek izandako harremana aipagarria da, baita Sara eta Bera arteko fazeriak ere. (Zelaieta, 2008: 27-28). Dena den, Irun-Hondarribiak, Bortziriek eta Lapurdik izan duten harremana iragan garaietatik datorrela esan behar da, egun nabarmen ahuldu baita.

Lapurdiz ari garela, eremua zehaztu beharra dago, izan ere, itsasaldeko herrietako, hau da, Hendaia, Biriatu, Urruña, Ziburu, Donibane Lohizune eta Azkaineko hizkeraren, eta barnealderago kokatzen diren Sara, Senpere, Ahetze, etab. herrietako hizkeraren artean desberdinu ohi da. Itsasaldeak, erdiguneko eragin handiagoa izan du eta bertatik itsasaldera hedatu diren ezaugarri batzuk, ez dira barnealdeko herrietara iritsi.

Epelderren (2004) esanetan, “Lapurdiko mugen barrutian gutxienez lau hizkera multzo bereizi dituzte orain arteko ikertzaileek: kostaldekoa (tradizioz kostatarra deitu izan zaiona), Aturrialdekoa, hego-mendebaldekoa, eta hego-ekialdekoa.” (271.)

Hau esanda, nire lanean, Lapurdiko hego-mendebaldea, kostaldetik hasi eta Senpere eta Arrangoitze arteko eremua hartu dut, testuek erakutsitakoari jarraituz, aurkeztuko ditudan ezaugarriak bitarte horretan ageri baitira. Lanean zehar zehaztuko da ezaugarri bakoitzaren geografia-hedadura. Beraz, Senperetik eskuin, ekialderagoko herriak, Uztaritze, Larresoro, Kanbo, Milafranga, etab. nire azter-eremutik kanpo geratu dira.

3.CORPUSA

Lanean XVII. eta XIX. mende arteko Irun-Hondarribiko, Bortzirietako eta Lapurdiko testu idatziak erabili ditut. Ondotik aurkeztuko ditudanak izan dira lanaren oinarri¹.

Gipuzkoako Bidasaldean, Hondarribiko Salazarren 1778ko predikua (Satrustegi, 1979), 1721eko Irungo udaleko agiriak (Altuna & Miranda, 1995), eta Irungo Azkueren

¹ Lehenengo ataletik aurrera (§ 4.1.1) lanaren oinarri izan diren testuetan ez da erreferentzia errepikatuko.

bi predikuak (Ondarra, 1987) erabili ditut. XIX. mendeko lekukotasun bakarra 1831-32ko Irun-Hendaiako predikuak dira (Ondarra, 1990)².

Bortzirietan, 1674ko Berako olagizonaren (Urrizola, 2006) eta Joseph eta Miguel Elizalderen gutunak erabili ditut (Sarasola, 1983). XVIII. mende erdiko Etxalarko dotrina (Reguero, 2017) eta 1857ko Lesakako predikua (Satrustegi, 1987) ere aztertu ditut.

Lapurdin, 1680ko Urruña eta Hondarribi arteko gutunak (Sarasola, 1983), 1757ko *Le Dauphin* itsasontziko gutuneria (Padilla & Videgain, 2015) eta Elosegiren liburuko agiriak (2018) izan ditut esku artean. Egañak (1998) argitaraturiko 1844-53 arteko Lapurdiko beste batzuk ere aztertu ditut.

Hauetz, gain beste lekukotasun batzuk ere erabili ditut, osagarri moduan. Gehienak gutunak dira, eta lanean zehar aipatuko ditut: Berako ordenantzak (Idoate & Villanueva, 1981), Itsasuko gutun batzuk (Donostia, 1934), Donibane Lohizuneko udalak Berara bidalitako gutunak (Irigarai, 1972), Sara, Bidarra eta Baztango beste batzuk (Ondarra, 1981), Sara eta Baztan arteko gutuneria (Satrustegi, 1987), eta Urruñako udalak Pasaiaokoari bidalitako beste gutun bat (Arozena, 1958).

Testuetan behar nituen datuak aurkitu ez ditudanean, Irizarren *Morfología del verbo alto-navarro sepetrional* (1992) eta *Morfología del verbo labortano* (1997) lanak beharrezkoak izan dira lan hau burutzeko. Irizarrek Bonaparteren euskalkien sailkapena jarraitu zuen eta azpieuskalkitan eta hizkeretan banaturik, lehenengoan nafarrerako indikatiboko aditz formak jaso zituen, eta bigarrenean berriz, lapurterakoak.

Behin erabili dudan corpora aurkezturik, esan beharra dago, testu zahar hauek erakusten dutena garai hartako hizkeraren ordezkarietat har daitekeen erabakitzea lan konplexua dela. Hortaz, ondoko atalean, Reguerok (2017) dialektologia egitean testuen inguruan sortzen diren arazoez kontatzen duena azalduko dut.

² *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkarian* argitaratu ziren. Liburutegian aldizkari aleak ez daude mailegagarri, eta bizi dugun egoera dela-eta ezin izan dut kontsultatu Ondarrak predikuei buruz dioena.

3.1. TESTUEN FIDAGARRITASUNAZ

Testu idatziak antzinako hizkuntza iturri bakarra dira, baina hauekin tentuz ibili behar da, sarritan behatzaileak ez baitaki testuan islatzen den hizkera garai hartako hizkeraren eredu fidagarria den ala ez.

Dialektologia sinkronikoan eta soziolinguistikan erabiltzen den *behatzailearen paradoxa* kontzeptuak dialektologia diakronikorako ere balio lezakeela dio Reguerok, behatua izaten ari den objektua testu idatziak badira: “behatua izaten ari den objektuak — hiztunak, alegia— badaki ikertzailea bera aztertzen ari dela, eta horrek eragina izan dezake emaitzan.” (Reguero, 2017: 17-18)³

Hortik, *dialektologo diakronikoaren paradoxa* proposatzen du. Testua idazten duenak badaki hartzaile bat izango duela, eta horrek eragina izan dezake erabiliko duen hizkeran. Horrez gain, idazkeraren araei lotua egon daiteke. Testu idatziak ahozko hizkeratik ezberdinak izaten direla, eta arkaismoak izateko eta prestigioidun hizkeretatik ezaugarriak hartzeko joera dutela azaltzen du. Horregatik, testu idatziekin lan egitean, egiten den hizkuntz-ezaugarrien deskribapena ahozkoarena beharrean, idatziari dagokiona dela gogorarazten du Reguerok.

Hau esanda, Regueroren arabera, garrantzitsua da esku artean ditugun testuen inguruko ahalik eta informazio gehien izatea: egileari buruz, testua noiz, non eta zein helbururekin idatzi zen, etab. Arazoa da, gutxitan izaten dela informazio hori. Halakoetan, testu bat inguruko testu eta egileen lan ezagunekin konparatzea beharrezkoa izaten da hau geografikoki kokatzeko.

Testu zahar baten aurrean gaudenean kontuan izan beharreko hiru irizpide aipatzen ditu. Lehenik, idazlearengan tradizio idatziak duen pisua aztertu behar da. Idazkera estandar bat izateak ahozko hizkeratik urrundu, eta idazleengan sor ditzakeen muturreko jokabideak gogoan izan behar dira. Gainera, hauek baliagarriak izan daitezke testu bat denboran kokatzeko. Era berean, Reguerok testu guztiek dialektologia egiteko balio dutela esaten du, eta gakoa, zein egoera komunikatibotan ekoitzi diren jakitean dagoela dio. Honen arabera, testu mota ezberdinak sortuko dira, eta denek ez dute helburu

³ Atal honetan aipatuko dudan guztia 1.3.2 § 2017ko Regueroren *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak* doktore tesitik atera dut.

bera izango: batzuek hartzaile kopuru jakin bat izango dute, besteak berriz, hartzaile zabalago batentzat izango dira, luzeagoak edo laburragoak izango dira, erregistro desberdina erabiliko dute, etab.

Hortaz, dialektologia egiterakoan, denak ez dira maila berean egongo. Horretarako, Schneiderrek dialekto sinkronikoetarako egindako testu moten sailkapenarekin bat eginez, dialektologia diakronikorako testu moten fidagarritasunerako hierarkia bat proposatzen du:

1. Berehala jasoak: hizketaldia gertatu zen momentuan idatzi den testu mota da, agiriak esaterako. Testu hauetan idazlariak hizlariak esandakoa zuzenean jasotzen du, hortaz, ahozko hizkeratik gertuen dauden testuak lirakeke.
2. Ondoren jasoak: hizketaldia gertatu ondoren idatzitako testua da. Elkarrizketak, adibidez.
3. Pentsatua: Egilea eta hartzailea ez daude ondoan. Aurreko bietan testua ahoz esan eta ondoren idatziz jaso izan bada, oraingo honetan testua idatziz jartzean sortzen da. Testu mota hauek literatur-lanetara hurbiltzen dira, baina kasu honetan, hauen egileak gehienetan idazteko ohiturarik ez duten pertsonak dira. Gutunak dira ohikoenak.

Sermoiak eta predikatuak ere hemen sar litezke Regueroren arabera. Testu hauek herri jakin batean predikatuak izateko eginak dira, eta gehienetan, hizkera estandarrik ezean, herriko hizkeran idatziko zutela pentsa liteke. Hala ere, erregistro eta estilo kontuek eragina izan dezakete.

4. Behatua: bigarren testu motaren antzekoa da, baina honetan, hizkerari buruzko berezitasunak jasotzen dira. Hauek izaten dira urrienak.
5. Asmatua: hizketaldi asmatua edo hipotetikoa da. Literatur-lanak sartuko lirakeke mota honetan. Idatziz jartzean sortuak dira, hirugarren motako testuak bezala, baina oraingo honetan, testu hauen egileak idazle jantziak dira.

3.2. TESTU AUKERAKETA

Fidagarritasun eskalan lehen bi testu motak, hizkera baten isla fidagarriena lirakekeenak, gutxi dira. Gehienetan hirugarren mailako testuetara jo behar dugu iraganeko hizkuntza ezagutzeko. Nire corpusera itzuliz, bistan da alde batetik sermoiak, eta bestetik gutunak, testu mota ezberdinak direla, baina Reguerok proposaturiko

fidagarritasunerako eskalan, hirugarren mailan kokatuko lirateke denak ere. 1721eko Irungo udaleko agiriak eta Elosegik argitaratutakoak aldiz, lehen motako testuak dira, hizketaldia gertatu ondoren jasoak.

Lapurdin herritarrek idatzitako gutun mordoak daude. Gutun hauek helburu pribatua dute, dela ahaide nahiz lagunei bidalitakoak, edota udalen artekoak. Padillak (2015: 47) gutunak ego-dokumentuen barruan sartzen ditu. Testu mota hauek gizarte-maila apaleko jendeak idatziak izaten dira, eta erregistro jasotik urruntzen dira. Horregatik, ahozko hizkerara gehien hurbiltzen diren testu idatziak liratekeela dio, beti ere egilearen eta hartzailearen artean dagoen distantzia komunikatiboak sor ditzakeen ñabardurak ahaztu gabe. Horrez gain, literatur-hizkuntzaren eragin txikiagoa izan ohi dutela azaltzen du.

Interesgarria deritzot Lapurdiko corpusaren zati handiena osatzen duten *Le Dauphin* itsasontziko gutuneriaren eta Elosegiren agirien inguruan zertxobait gehiago esateari. *Le Dauphin* itsasontzia Baionako portutik abiatu zen 1757ko apirilean, eta hainbat dokumentu zeramatzan, haien artean lapurtarrek Ile Royalen bizi ziren senide eta lagunei idatziriko 50 euskarazko gutun. Lapurdiko hamar barietate identifikatu dira eskutitz hauetan (Padilla, 2015: 52).

Elosegik berriz, 1741 urte inguruko hainbat notarik egindako 78 agiri aurkitu zituen. *Senpere (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean* izena eman dio liburuari, 78 agirietatik gehiengoa Martin Harismendy Senpereko notariarenak baitira. Gainontzekoak, Arrangoitzeko, Azkaingo, Urruñako, etab. notariarenak dira. Dokumentu hauek bereziak dira, artean, garai hartan herri xeheak ez ezik, noble batzuk ere euskaldun elebakarrak zirela erakusten dutelako. Jendeak euskaraz egiten zuen notariaren aurrean, eta notariak idatziz jasotzen zuen esandakoa. Testuak lapurteraz idatzita daude, baina Elosegik (2018: 18) ohartarazten digu idatziaren eredua frantsesarena dela. Mota honetako testu oso gutxi jaso dira. *Le Dauphin*-eko gutunak eta Elosegik argitaraturiko agiriak, biak hizkuntzazko datuak eta XVIII. mendeko gizartearen beste ikuspegi bat emategatik dira garrantzitsuak.

Lapurditik atereaz, Irun-Hondarribian eta Bortzirietan, esan bezala udaleko agiri eta ordenantza batzuk izan ezik, prediku edo sermoiak erabili ditut. Gorago azaldu bezala, Reguerok prediku hauek herri jakin bateko elizan ahoz esateko sortuak direla, eta egileak

idazle oso jantziak ez izateaz gain, herriko hizkera erabili ohi dutela dio. Baina hala ere, gogoan izan behar da erregistro zainduagoa erabiliko dutela eta oratoria eta estiloaren erabilerak eragina izan dezakeela. Halakoetan, egileari buruzko informazioa izateak testua kokatzen lagun diezaguke.

1778ko Hondarribiko predikuaren egilea, Roke Jazinto Salazar hondarribiarra da, eta Letamendia & Sagarzazuk (1992) erakutsi zuten Hondarribiko hizkeraren ezaugarriak ongi ezagutzen zituela. Ondarraren arabera (1987), Irungo 1781ko bi predikuak Juan Bautista Azkue irundarrarenak dira. Testuak Irungo euskararen ezaugarriak erakusten ditu, eta horixe dio Ondarrak ere.

Etxalarko dotrinari buruz, Reguerok (2017) Joan Bautista Sanzberro etxalartarrak idatzi zuela, eta Bortzirietako hizkeraren ezaugarriak dituela erakutsi du. Lesakako predikuaren egilea Anastasio Etxeberri Elizondoko gaztea da. Satrustegiren arabera (1987: 247) urte pare bat eman zituen Lesakan, baina ongi ezagutzen omen zuen herriko hizkera, eta predikuetan erabili zuen.

Testu hauek guztiek aztergai den eremuko hizkeraren ezaugarri-multzo bat erakusten dutela ikusi dut, eta horregatik, nire lanean baliagarriak direla deritzot.

Azkenik, Satrustegik *Euskal Testu Zaharrak I* (1987) liburuan Laffitekin jasotako 1854ko Irungo beste prediku bat aurkeztu zuen. Testu hau nire corpusean ez sartzea erabaki dut, eta horren arrazoiak laburki azalduko ditut. Eskualde honetako beste testu batzuekin alderatu, eta egun Irungo euskaraz dakiguna kontuan harturik, sermoi honetan ez dira Irungo hizkeran esperoko genituzkeen hainbat ezaugarri ageri. Egilearen inguruan ez dakigu ezer, eta Satrustegik berak ere ez du iruzkinik egiten sermoi honen hizkerari buruz. Xehetasun gehiagotan sartu gabe, nire helburua betetzeko testu hau oso baliagarria izango ez zitzaidala deritzot.

4. BERRIKUNTZAK

Irun-Hondarribiko, Bortzirietako eta Lapurdiko hego-mendebaldeko hizkerak elkarrengandik urruntzen dituzten ezaugarriak alde batera utzi, eta partekatzen dituztenen artetik, lau hautatu ditut: fonologian hiatoetako *-y-* eta *-b-* epentesiak, izen morfologian erakusle analogikoak, aditz morfologian laguntzaileetako sinkopak, eta azkenik, hirupertsonalen sailean bipertsonal iragankorren erabilera.

Caminok berrikuntza partekatuei buruz esandakoa gogoan izanik, “Bi eremuk berrikuntza bat era berean egin dutenean: garai bera, modu bera eta gainera geografikoki ondoan egonda, etab. ezin da berrikuntza beregaintzat jo, hau da, elkarri entzun diotelako, kopiatu diotelako gertatu da, bi hiztun erkidego horiek harremana dutelako.” (2008: 214), lau ezaugarri hauek hiru hizkerek batera egindako berrikuntzak direla erakusten ahalegindu naiz.

Testu zaharretatik abiatuak, ezaugarri bakoitzaren kronologiari erreparatu diot: hiru eskualdeetako lehen testuetan agertzen dira bai epentesiak, bai erakusle analogikoak eta baita adizki sinkopatuak ere. Laugarren ezaugarria, hirupersonalen sailean gertatu den ordezkatzeari, berriena izanik, XIX. mendeko Lapurdiko testuetan bakarrik ageri da, baina hala ere, Lapurdiz eta Bidasoaldeaz ari garela, aipatu beharrekoa dela deritzot.

Ezaugarri bakoitzak lehen agerralditik, hurrengo mendeetan testuetan izan duen bilakabideari erreparatu diot, ea forma solteetan gertatu den berrikuntza bat izan den, ala emankorra izan den. Berrikuntza gertatzeko baldintza gramatikalak ere zehazten saiatu naiz. Horrez gain, ezaugarri hauek geografian zein hedadura izan duten, ondoko hizkeretan ere ageri diren kontuan izan dut.

Hortaz, lan honetan aurkeztuko ditudan berrikuntza hauek, inguruko hizkeretara ere hedatu direla esan beharra dago. Batzuek eremu zabala hartzen dute, Euskal Herriko herri askotan entzungo ditugu. Beste batzuk aldiz, Euskal Herri osoan ez, baina ekialde zabalean hedatzen dira. Hala ere, hizkera hauen izaeran zeresana badutela iruditzen zait. Eremu murrizteko ezaugarri bati buruz, antza, aztergai den eremura mugatzen den berrikuntza bati buruz ere arituko naiz.

4.1.FONOLOGIA

4.1.1 -y- eta -b- epentesiak

Hiatoetan kontsonante epentetikoak sortu dira: $-u- + V$ elkartzean, $-uv > uBv$ gertatu da, eta $-i- + V$, $-iv > iYv$. Bilakabide fonologiko hauek, hiru eskualdeetako testuetan islatzen dira.

Epentesi hauek, Bonapartek (1877) XIX. mendean Hondarribian eta Irunen jaso zituen. Corpusera joz, XVIII. mendean Salazarren predikuan (Satrustegi, 1979) *u* bokal

altuaren ondotik *-b-* epentetikoa ageri da, *hubenian* (289.), *zubenian*, *zuba* ‘sua’ (293.). Baina *i* bokalaren ondorengo *-y-* epentesiaren adibiderik ez dago. Letamendia & Sagarzazuren (1992: 512) arabera, bitxia da bilakabide hau predikuan ez azaltzea, egun maiz gertatzen baita Hondarribian. Azkueren (Ondarra, 1987) Irungo predikuetan *-b-* epentesia islatzen da, baina *-y-* ez. Ordea, 1721eko Irungo Udaleko agirietan *suriya* dugu, eta *basubeq*, *nubenaq* (Altuna & Miranda, 1995: 542). Azkenik Irun-Hendaiako predikuetan ere *criyatura*, *gutyago*, *escribittuba*, *munduba* (Ondarra, 1990: 25) aski erregularrak dira bilakabide hauek.

Bortzirietan XVII. mendetik hasita, Berako olagizonaren gutunetan *-uv>uBv* epentesiaren adibide pareta dago, *contuban*, *duben* (Urrizola, 2006: 265). Joseph Elizaldek (Sarasola, 1983) bere arrebari bidalitako bi gutunetan hiatoetan ez dago aldaketarik. Baina Miguel Elizaldek bere izebari idatzirikoetan, *diyo*, *duzubela*, *duzuben*, *baliyo*, *preziyua* (141.) bezalakoak maiz ageri dira. Testu honetan, epentesiez gain, disimilazioak ere maiz gertatzen dira *arzequa*, *astuaren*, *erriel* (141.). Izebaren gutunean ordea, ez dago adibiderik. Hurrengo mendeetan, Etxalarko dotrinan (Reguero, 2017) *zuben* (359.), *santuven*, *santubac* (360.) adibide gutxi daude, baina XIX. mendean Lesakako predikuan (Satrusegi, 1987) erabat arruntak dira bilakabide hauek, eta baita Berako ordenantzetan ere, *erregimentubac*, *dubela*, *erriyaren*, *zarracubac*, *providenciayara*, *guciyec* (Idoate & Villanueva, 1981: 276). Sistematikotasun gehien Bortzirietako testuetan erakusten dutela esango nuke.

Reguerok (2017: 549), erdiguneko hizkerek egindako berrikuntza hau Nafarroa ipar-mendebaldera, Bortzirietara mugatzen dela dio, hau da, eskualde honek bakarrik hartu duela *-uBv* berrikuntza.

-uYv epentesiak eremu zabalagoa hartzen duela dirudi. Bidasoaldean, Bortzirietatik beheiti hedatu dela dio Zelaietak (2008: 83). Sunbillan gertatzen da, eta Oronoz-Mugairin ere bada zerbait, oso irregularra den arren, baina Baztanera ez da iritsi. Dena den, indar gehien Bortzirietan duela dio. Montoyak (2003) Urdazubin eta Zugarramurdin, ez du epentesirik jaso, eta ezta Ibarrek (1994) Ultzaman ere.

Lapurdin, testu jasotetan bilakabide hauek islatzen ez diren arren, XIX. mendean Bonapartek (Irizar, 1997) *-ua>uBa* eta *-ia>-iya* entzun zituen Hendaian, Urruñan, Azkainen, Ziburun, Getarian, Donibane Lohizunen eta Bidarten. XVII. mendetik

Urruñako gutunetan *-b-* epentetikoaren adibideak ditugu 1. gutunean *estatuban, badaquissube, dusubela*, etab. Beste bilakabiderik ez da islatzen. 1757an, *u* ondoko epentesiaz gain, *-y-* epentesiaren txertaketa maiz azaltzen da *Le Dauphin* (Padilla & Videgain, 2015) ontziko gutunerian. Donibane Lohizuneko gutun batean: *gusijaren, amodijuaren* etab. (137.) 1788an Donibaneko udalak Berako udalari bidalitako gutunetan ere *buruba, guinduben, casuban* (Irigarai, 1972: 346) ditugu. Elosegik (2018) argitara emandako agirien kasuan, epentesi hauen agerraldi gutxiago dira. *-iv>-iYv* ia ez da ageri, eta *-iv>-uBv* ere gutxiago. XIX. Mendean Egañak (1998) argitaraturiko gutunetan, *adituba, eguiyasqui, probediyentciaren, obligatuba* (497.) daude.

Lapurdin epentesiek izan duten hedadura zehaztu beharko litzateke, izan ere, bada alde testurik-testu. Hasteko, Elosegik argitaraturiko agirietan, esan bezala epentesien adibide gutxiago dira. Agirien egile bakoitzak ere, testu guztietan ez du erregulartasun berdina erakusten. Alde batetik, Martin Harismendy Senpereko notari arbonarraren dokumentuak dira liburuan gehien jasotzen direnak, eta hauen artean *-b-* epentesia ageri da soilik, eta tarteka baizik ez. Baina liburuko agiri guztien artean, Harismendyk berak 1749ko Getariako portuko obra batzuen inguruan eginiko memorioan ageri da maizenik: *duben, firmatubac, batcubequin*, etab. (37.). Horrez gain, Michel Garrin izeneko Bidarteko notariaren agirietan bakarrik daude *diyodalla, biyec* (164-165.) bezalakoak. Bestetik, testu gehienak Senpere eta Ahetze ingurukoak direla kontuan izanik, honek itsasaldean epentesia badela, eta barnealdeko herrietara ez dira iritsi erakutsiko luke.

Le Dauphin-eko Ziburu, Hendaia, Bidart, Getaria, Urruñia eta Donibane Lohizuneko gutunak, Sara, Senpere edo Ahetzeko gutunekin alderatuz gero, oro har, itsasaldean erraz topatu ditut, Hendaiaiko gutun honetan esaterako, *berrijaq, gorraciyaq, gorriyaq* (96.) bezalakoak. Baina kostaldetik haratago, *-b-* epentetikoaz gain, nekez aurkitu dut besterik. Beste testuetan ere, Sarako herritarrek XVIII. mendean idatzitako gutunetan, egoera berdina da: 1773ko Sara eta Baztan arteko korrespondentzian (Satrustegi, 1987), ez dago epentesidun adibiderik, eta 1799ko beste gutun batean ere *zuben* (Ondarra, 1981: 478) besterik ez dugu aurkitzen. Honek ere epentesiak Lapurdiko itsasaldean hedatutako ezaugarriak direla pentsatzera narama.

Bilakabide hauek ez dira ageri Lapurdi ekialderago, esaterako, Itsasuko XIX. mendeko gutunetan ez dago epentesirik (Donostia, 1934). Egun, Lapurdiko hego-

ekialdean Epeldek ez du halakorik aipatzen (2004), ezta Duhau-k Aturrialdeko Beskoitzen ere (2002).

Zuazok (1998: 201) erdiguneko eremu murrizteko ezaugarritzat ditu. Egun -y- epentesiak Bizkaiko ekialdeko erdian, Deba arroan, Gipuzkoako iparraldean, Nafarroa Garaiko Bortzirietan, Sunbillan, Aranon, Sakanan eta Lapurdiko kostatarrean gertatzen direla dio. -b- epentesia berriz, Gipuzkoako iparraldeko zenbait hizkeratan, Sakanan eta Lapurdiko kostaldeko hainbat herritan aurkitu ditu, baina gehienetan atzeraka doala adierazten du.

Bi bilakabideen artean, -b- epentesia da gehien hedatu dena, eta behintzat testuetan gehien islatu dena. XVII. mendetik hiru eskualdeetako testuetan jaso den bakarra da, eta gainontzeko mendeetan ere testu gehienetan islatzen da. Gaur egungo erabilerari erreparatzen badiogu, ordea, atzerakada handiena izan duena dela ikusiko dugu. Artolak -uba bilakabidea ia ez du jaso Lapurdi itsasaldeko herrietan (Irizar, 1997: 264), ezta Sagarzazuk (2005) Irun-Hondarribian eta Zelaietak (2004) Bortzirietan ere.

Testuek erakusten dute erdiguneko hizkeretan sortu diren hiatotako berrikuntza hauek Irun-Hondarribira, Bortzirietara eta Lapurdira hedatu dela. Lapurdin ordea, 1680ko Urruñako gutunetan ez da -y- epentesirik islatu, eta XVIII. mende erdialdetik aurrera berriz, maiz gertatzen da epentesia. Horrez gain, esan bezala, itsasaldera mugatuko nuke ezaugarri honen hedadura, ondoko herrietan, Saran, Senperen, edo Ahetzen -y- ez baita ageri, eta -b- epentesiaren adibideak ere gutxi dira.

4.2. IZEN MORFOLOGIA

4.2.1. Absolutiboaren gainean eraikitako erakusleak

Erakusleen sailean berrikuntza bat partekatzen dute Gipuzkoako Bidasoaldeak, Bortziriek eta Lapurdik: pluraleko erakusle genitiboa absolutiboko aldaeraren gainean eraikitzen da.

1778an Salazarren predikuan 1.graduko absolutibo plurala (eta ergatiboa), *oc* da, baina ez dago erakusle datibo eta genitiboen adibiderik. 3. raduko sailean berriz, *aiec* darabil, eta genitiboan ere *aien barrenac* (296.). Gainontzeko kasuak *otatic* (292.), *aietatic* (293.). 1721eko Irungo udaleko agirietan 1.graduan genitibo pluralean *oquen amoriagatiq*

(542.) erabiltzen du, baina 3.graduko sailean Salazarren predikuan bezala *aien escuetan* (542.). Azkueren predikuetan 1.graduko erakusle plural datiboan *galde- ciozube oqui* (305.) eta genitiboan *oquen* darabil, *oquen guztian contra* (306.). Destinatiboan *equendaco* (300.) eta *oquendako* (306.) dago. 3.graduko erakusleen sailean *ieic* dago, instrumentalean *eietaz* (302.), baina genitiboan *equen* erabiltzen du beti, *equen constancia* (306.). Datiboaren adibiderik ez du ematen.

Irun-Hendaiako predikuez beste hainbeste esan daiteke. Batetik *okin*, *oken*-en aldaera ere erabiltzen du, *oquin vistan* (29.) geroago ikusiko dugun bezala Lesakan eta Beran ere agertuko da. Gainontzeko kasuetan *otan*, *oteric/otaric* izango da. Bestetik *equin desterruba* (23.) darabil, *equen*-en aldaera, baina *ayetan* edo *etan* eta *etaz*.

Bortzirietan 1674an Berako olagizonaren gutunetan genitiboan *equin faltan* (264.) dago. Geroago, Lesakako predikuan, *oquin* eta *equin* darabil, *oquin battan* (250.), *otaz equin obretan* (250.). Gainontzeko kasuak: *otariq/otatiq*. Berako Ordenantzetan ere *oquin costura* ageri da (Idoate & Villanueva 1981: 276).

Urruñako 1680ko gutunetan *cenbait hequien habitant* dago (135.), eta inesiboan *hetan* (134.). *Le Dauphin*-eko gutunetan inesiboan *bi lerro hauquietan* (142.), eta genitiboan *sos hequin galdea* (102.), *frutu on-hequin ecarseco* (157.) ageri dira. Elosegiren agirietan, datiboan *lur hauqui dachicon* (58.), genitiboan *hauquin Despuillaren* (117.) daude. 3.graduan ere *hequi juntatua* (52.), *hequin gainian* (54.), *hequien pagatcerat* (69.) darabiltzate. Sara eta Baztan arteko gutunerian 1733an *herri hauquien artean* ageri da (Satrustegi, 1987: 134). Gainontzeko kasuetan, *Le Dauphin*-eko adibideak *hautaquo* (135.), *hautaz* (157.), eta Elosegiren liburutik atereak: *hetaz*, *hetaric* (148.). Egañak argitaraturiko 1851ko gutun batean *ezcondou nahiz nagola equin* (498).

Caminoren arabera (2013: 128), XVII. mendean Materrak *haueken* eta *heken* erakusle genitiboak erabili zituen, baina datibo eta inesiboan berriz, *hei* eta *hautan*. Axularrek eta Xuriok ere, genitiboan absolutiboaren gainean eraikitako aldaera erabili zuten, baina ez datibo eta inesiboan. Dena den, Xuriok sozietiboan *hequiequiñ* eta destinatiboan *hequientçat* zituela dio.

XIX. mendean Lapurdin analogia zehar kasu gehiagotara hedatu dela azaltzen du Caminok, Nafarroan bezala: datibo, sozietibo, destinatibo, instrumental, inesibo edo

ablatibora (2013: 128). Nafarroari dagokionez, Beriainek XVII. mende hasieran analogiarik gabeko erakusleak zerabiltzala dio. Ezaugarri honen kronologia zehazte aldera honako hau esaten du:

Leizarragaren 1571ko liburuan erakusleak ez dira analogikoak zehar kasuetan, balirudike beskoiztarrak idazten dituen aldaerak berrikuntza gertatu aitzinekoak direla: *hauk, hauei, hauen, hautarik* lehen mailan eta *haei, hayen, hekin, hetan, hetako...* hirugarrenean; beharbada, zuberotar artean egonik ez zituen islatu nahi izan, zail da haren euskararen hainbat ezaugarri interpretatzea: Lapurdin analogia hau XVI. mende aldera gertatu zela uler liteke? Ez jakin. (Camino, 2013: 129)

XVII. mendean Nafarroan lekukotasun bakarra Berako olagizonaren gutunean ageri da: *equin faltan*. XVIII. mendean aldiz, testu nafar gehiago agertzearekin batera, erakusle hauen adibideek gora egiten dute. Horrela, Bortzirietatik kanpo, 1750ean Baztango eliz-aginduetan *hoquen desterracera* eta *hequin ussacera* daude, eta XIX. mendean Bertizaranan *hequin, hequen, hoquen* (Reguero, 2017: 571). Egun Zelaietak Baztanen gehienbat *okei* eta *ekei* erabiltzen direla dio, baina Baztangoizan *oki* eta *eki* (2008: 179). Horrez gain, forma pleonastiko berri bat ematen du: *okek* (178.), eta Ultzaman, Imotzen eta Ipar Esteribarko Eugin eta Iragin ere ezaguna dela aipatzen du Zelaietak. Horrela, Ibarak (1994) Ultzaman 1.graduko erakusle pluralen sailean, paradigma erregular bat ematen du, kasu guztiak absolutibo pluralaren gainean eraikitzen dira: *hoketan, hoketaik, hoketas*, etab. 3.graduan, ordea, ez da halakorik gertatzen: *haietan, haietatik, haietas*. (369.)

Patxi Iñigok (1980), Bortzirietan analogia 2.graduko erakusleetara hedatu dela erakusten du. Genitiboan *horiken / horikin, hoiken/ hoikin* eta datiboan *horikeri/ horikiri, horiekiri/ hoikeri/ hoikiri* (43-44.). Bizidunen inesibo, adlatibo eta motibatiboa ere pluralaren gainean eraikitzen dute: *hokénbaitan* eta *hekinbattan, hékingana, horíkinganik eta hékinganik*.

Hondarribian, Letamendia & Sagarzazuk (1992: 524) *óki-ókeri, óyeki-óyekerri, áyeki-áyekerri, óken, óyeken, oríyeken, áyeken* eta *uráyeken, eta* leku-kasuetan *óketan* erabiltzen direla diote. Portuko auzoan entzuten diren *oríyeki-oríyekerri* eta *uráyeki-uráyekerri* ere aipatzen dituzte. Ablatiboan *óketik* (34.), *oketatik* (83.) erabiltzen dira (Alzola, 1964).

Bidasoaldean pluraleko analogia izen arruntetara ere iritsi da. Datibo pluraleko -*aki* eta genitibo pluraleko -*aken* forma berriak sortu dira. XVIII. mendean ageri dira lehen aldiz Salazarren predikuan: *Isrraelitaqui, sacerdotiaqui* (289.), *Criaturaqui* (292.), etab. eta genitiboan *Belzebu Demoniuaguen Principiaren virtute eta podoriarequiñ, Belzebu Demoniuaguen Pricipiaren virtutiaren medios* (293). Nahiz eta sistematikoak ez diren, XVIII. mendetik aurrera Bidasoaldeko testu gehienetan jaso dira: Azkuek predikuetan -*ai*, -*ei*, eta -*aki* erabiltzen ditu, eta Irun-Hendaiako predikuetan genitiboko -*aken* /-*akin* ageri dira.

Forma hauen hedaduraren berri eman zuen Azkuek 1906an bere hiztegian. Forma hauek Baztanen, Lesakan eta zehaztu ez zuen herri batean ere baliatzen zirela adierazi zuen, eta *Erizkizundi Irukoitza*-n (1922-25), Irun-Hondarribian eta Beran erabiltzen zirela erakutsi zuen. Holmerrek (1964) ere bere lanean Arantzako adibideak ematen ditu: *giso 'neken ecea, giso 'neki'n ecea, bercieken*. (Letamendia & Sagarzazu, 1992: 519). Hortaz, Irun-Hondarribitik kanpo, Bortzirietara ere iritsi da berrikuntza hau. Gaur egun, Irun-Hondarribian -*aki*/ -*akeri* eta -*aken* aldaerak oraindik bizirik daude (Sagarzazu, 2005: 69), eta Bortzirietan, gutxiago bada ere, erabiltzen omen dira (Zelaieta, 2004: 242).

Erakusleetara itzuliz, ez dirudi *hauken* eta *heken* erakoak Lapurdi osoan zabaldu direnik. 1807ko Itsasuko gutun batean *gauca hauien* eta *hauien arçainac* (Donostia, 1934: 694- 695) ageri dira, eta egun, Epeldek Lapurdiko hego-ekialdean *hau(i)en* eta *heien* erakoak jaso ditu (2004). Duhau-k Beskoitzen ere ez du erakusle analogikorik aipatzen (2002).

EHHA-ko datuetan, Donibane Lohizunen *auki, aukien* eta *eki(e)ri, ekien*; Saran *auki, aukien* eta *aiki, ekien* eta Senperen *auki, aukin/ aukien* eta *aiki, aikien/ eken* jaso dira. Arrangoitzen eta Ahetzen ere zerbait bada, baina ez da beti gertatzen. 2.graduan ere erakusle analogikoak erabiltzen dira, Donibane Lohizunen, Saran eta Senperen: *oiken/ oikien* eta *oiki*.

Zugarramurdi eta Urdazubin badira absolutiboaren gainean eraikitako kasuak. Montoyak (2003) *auki / eki, eken* (baina *auen*), soziatiboan *aukikin / eki(e)kin*, destinatiboan *aukindako* (baina *aiendako*), etab. jaso ditu. 2.graduko erakusleetan, kasu batzuetan ere gertatzen da analogia: *oiki, oik(e/i)n* eta *oik(i/e)ngatik*. (109.)

Erakusleetako berrikuntza hau ez da eremu honetan bakarrik gertatu. Nafarroa ipar-ekialde eta erdialdeko hizkerak hartzen ditu. Lapurdin, badirudi ez dela itsasaldera mugatzen, testu zaharretatik, barnealderago Saran, Senperen edo Arrangoitzen ere erabiltzen baitira, baina ekialderago ordea, ez dira ezagunak.

Hau esanda, Bortziriek, Irun-Hondarribiak eta Lapurdik bat egiten dute berrikuntza honetan, lehen testuetatik erakusle genitiboen adibideak jaso dira. XVIII. mendean, Irungo Azkueren predikuetan, analogia datibora eta destinatibora hedatu dela ikus daiteke, eta Elosegik argitaraturiko agiriek eta *Le Dauphin*-eko gutunek, Lapurdin ere, datibora eta inesibora hedatu dela erakusten dute. Lesakako predikuan, erakusle analogikoek Irungo bilakaera berdina izan dute. Egun, kasu gehiagotara, eta 2. gradura ere hedatu dela ikusi dugu. Horrez gain, Bidasoaldeko izen arruntetako *-aki* eta *-aken/akin* atzizki pluralak honekin lot daitezke.

4.3. ADITZ-MORFOLOGIA

4.3.1. Adizki sinkopatuak

**edun*-en adizki pluraletan sinkopak gertatzen dira aztergai den eremuko testu guztietan. Aferesizat ere har daitezke, hasierako silaba galtzen baita, baina aditz laguntzailea nagusiaren ondotik joan ohi denez, sinkopa deitzen zaio (Reguero, 2017: 618). Mounole & Gómezen (2018: 508) arabera, perifrasi gramatikalizazioa aurrera doan heinean, higitze fonetikoaren ondorioz kontrakzioak sortzen dira aditzetan.

Corpusean 1721eko Irungo udaleko agirietan *galdu tugu* (542.) ageri da kasu batean. Salazarren predikuan ere *bihar tu* (289.), *botazen tuste*, *botazen batuste* (296.) sinkopatzea dago, baina *urricari ditut* (289.). 1783ko Azkueren eta 1831-32ko Irun-Hendaiako predikuetan erabat arruntak dira *nai ttuztenequinzat*, *icusten ttuzte*, etab. (26.).

Bortzirietara joz, XVII. mende amaierako Miguel Elizalde idatzitako gutunetan, *ona tugula*, *ezaguzen tu* (141.) eta 1674ean Berako olagizonaren gutunetan *ematen tidazu* (264.) ageri dira. Gutun guztietan, sinkopatuekin batera, forma osoak ere badaude. XVIII. mende erdialdean Etxalarko dotrinan ez dago sinkopatzea gertatzeko testuinguru posiblerik. 1857ko Lesakako predikuan sinkopatuak adizkiak dira nagusi: *yotzen ttu* (254.), *eta ttuzu equin istiaq eguitten* (255.), *erraten ttigun*, *eguin ttizubedan*.

Bortzirietan eta Irun-Hondarribiko testuetan **edun*-en adizkietan gertatzeaz gain, *-*i*-rekin ere, hirupertsonaletan gertatzen da. Bi hizkera hauetan analogiaz -*it*- pluralgileak -*zki*- ordezkatu du. Berrikuntza hau Nafarroa gehiengan gertatu da eta Bidasoraino hedatzen da. Regueroren arabera (2017: 612), aldaketa hau XVII. mendean hasi, eta XVIII. mendera arte, ez zen Nafarroako testuetan orokortu. 1778an Salazarren predikuan -*it*- pluralgileak -*zki*- ordezkatu du: *eguiten zitien* (289.), *escazen citiosten* (293.), etab., eta berdin 1783an Azkueren predikuetan ere: *ucazen tizue, pronosticacen tizubegun* (301-302.).

Lapurdin 1680an baditugu sinkopadun adibideak Urruñako gutunetan: *seguratcen tugu, erraten tusten, errendatuco tuzuella* (268.), etab., baina *handiac ditucue* (269.). Hurrengo mendetan, *Le Dauphineko* gutunetan *egun tutçula* (123.), *egorxen tuben* (119.) daude, eta beste hainbeste gainontzeko lekukotasunetan, Elosegik argitaraturiko agirietan, Donibane Lohizuneko udalak Berakoari bidalitako gutunetan (Irigarai, 1972), etab. Gertakari sistematikoa da sinkopatzea.

Idazle lapurtarren lanetan XVII. mendetik ageri dira halakoak: Etxeberri Ziburukoak *ekhartcen tic, eman tutçun*; Gazteluzarrek *zertako tugu hedoiak* eta Etxeberri Sarakoak *beharriac erne tuzu?* (Mounole & Gómez, 2018: 508).

Reguerok (2017: 619) Nafarroako egoeraren berri ematen du. Honen arabera, 1750 aurretik testu nafarretan aditz sinkopadunen agerraldi oso gutxi dira. Lehen aldiz 1567an Amenduxen olerkian *icusten tut* jasotzen da. Geroago, 1610ean, *erraten tuztela* Martinez Saratsakoaren testuan, eta mende amaieran lehen aipaturiko Elizalderen gutunak batetik, eta Berako olagizonaren gutuneko adibideak daude bestetik. Beste eskualdeetan aldiz, Beriainek esaterako, halakorik ez duela esaten du, eta hurrengo mendean, 1729ko sermoian *vear tucie* dago. 1743 inguruko Obanosko bertsoetan *deicen tuzu* eta *erremediatcen tuzu*, eta esan bezala, Irunen 1721ean *galdu tugu* dago. Lizarragak 1802an badarabiltzala, eta Bonapartek, hego-nafarreraren aditz-tauletan *tut, tuzu, tidazu, tiot* bezalakoak sartu zituela azaltzen du. Iparraldean berriz, XVI. menderako Etxepareren lanean ageri omen dira. Hortaz, Reguerok Nafarroan adizki sinkopatuak XVIII. mende erdialdetik aurrera orokortu zirela adierazten du.

Ezaugarri honek hedadura handia du, Ipar Euskal Herrian eta oro har ekialdeko hizkeretan gertatzen da. Bortzirietan eta Gipuzkoako Bidasoaldean XVIII. mende erdialdetik arruntak dira adizkietako sinkopa hauek.

Hain zuzen, Bortzirietan eta Irunen 1750 baino lehen sinkopadun aditzak dakartzaten hiru lekukotasun izateak, Nafarroako beste hizkeretan halakorik ez denean, Reguerok (2017: 619) hizkera hauek Lapurdira hurbiltzen dituela dio. 1680ko Urruñako gutunetan adizki sinkopatuena adibide ugari dago, eta idazle lapurtarrek ere badarabiltzate. Baina Bidasoaldeko testuetan, XVIII. mendetik aurrera indarra hartu, eta erregularra izango da adizkietako sinkopatzea.

4.3.2 Hirupertsonalen ordezkatzeta

Aditz hirupertsonalen sailean, adizki bipertsonal iragankorrek erabiltzen dira Lapurdin, Irun-Hondarribian eta Bortzirietako Etxalarren.

Bonapartek *Idiotisme marin* eta Laffitek *Le solecismo du côte* bezala definitu zuten, erabilera okertzat baitzuten. Fernández & Ezeizabarrenak (2001) Sarako hiztun baten solasa aztertu ondoren, akatsa baino gehiago, sistema bat osatzen duen fenomeno bat dela erakutsi eta Datiboaren Lekualdatze izena eman diote. Hiru argumentuko aditzetan, datibodun argumentuak adizkian absolutiboari dagokion komunztadura marka jasotzen du, datiboarena beharrean. Hortaz, datibo komunztadura desagertu egiten da. *Tempusik gabeko* fenomenoak dela diote, iraganean ere datibo argumentua absolutibo komunztaduraz adierazten baita: *ninduzun eta zintudan*. Hau ez da forma solteetan gertatzen, fenomeno hau gertatzeko baldintza sintaktiko batzuk bete behar dira: datiboko argumentuak 1. edo 2. pertsona singularra izan behar du, eta absolutibo argumentuak 3. pertsona.

Corpusera joz, 1815ean Urruñako udalak Pasaiari bidalitako gutunean (Arozena, 1958) *escribatu cintudanaren erreputa* (145.) ageri da kasu batean. Geroago, Egañak argitaraturiko gutunetan, hainbat adibide ageri dira: Urruñako 1845eko batean *erraten nauquela, erraten ninduken, erraiten ninduquen* (496.) eta Ziburuko 1845-47 arteko beste bi gutunetan *Jaincoac olaco seguida eman hau* eta *escriba nau* (497.).

**edun*-en adizki bipertsonalekin batera, **eradun*-en adizkiak ere erabiltzen dituzte 1. eta 2. pertsona datiboa denean: Ziburuko gutunetan *erremegiaren hausquit, escribasen*

dausquisut, desirascen dausut (497.) eta *eguin cinnautan, escribatu nautçun* (Arozena, 1958: 145). Azken adibide honetan, Arozenak argitaraturiko Urruñako udaleko gutunaren egileak, baldintza gramatikal berak direnean, kasu batean bipertsonala erabili du, eta bestean berriz hirupertsonala.

Bonapartek (1877) XIX. mende amaieran jaso zuen fenomeno hau. Hondarribian eta Lezon, Donostiaraino, hau barne, erabiltzen omen ziren *nau* ‘dit’ erakoak. Lapurdin, itsasaldeko herrietan jaso zuen gehienbat. Donibane Lohizuneko paradigma erregular bat ematen du (Irizar, 1997) (Ikus 1.taula). Barnealderago, Saran, Senperen, Ahetzen, Arrangoitzen, Zugarramurdin, etab. zerbait jaso zuen, baina hirupertsonalak nagusi ziren.

XIX. mendea baino lehen Lapurdiko testuetan ez dut fenomeno honen adibiderik aurkitu. XVIII. mendeko itsasaldeko herrietako testuetan **eradun*-en formak erabiltzen dira. 1757ko *Le Dauphin*-eko gutunetan, Azkainen *eman nausquitçun* (104.), Getarian *ematen dautedala* (111.) eta Donibane Lohizunen *egin dausquinat* (117.) ageri dira.

Gutunetatik kanpo, idazle lapurtarrek adizki hirupertsonalak erabili zituzten. 1870ean bada salbuespen bat, Daskonagerrek⁴ *Atheka gaitzeko oihartzunak* liburuan (Irizar, 1997: 278) bipertsonalak zerabiltzan hirupertsonalen ordean.

Bonapartek XIX. mendean, eta Artolak 1994an Donibane Lohizunen jasotako forma batzuk ondoko taulan bildu ditut. (Irizar, 1997) (Ikus 1.taula).

⁴ Ez omen zuen Daskonagerrek berak idatzi, eskualdeko sakristau batek baizik. (Irizar 1997: 278).

1.taula. Donibane Lohizuneko adizkiak

		Bonaparte (XIX.)	Artola 1994
Oraina	1.dat.sg.	<i>nauzu</i> <i>nauzkitzu</i>	<i>nauzu</i> <i>nauzkitzu</i>
	2.dat.sg.	<i>zaitut</i> <i>zaitzkitzut</i>	<i>zaitut</i> <i>zaitzkitzut</i>
	1.dat.pl.	<i>gaitutzu</i> <i>gaitutzu</i>	<i>gaitutzu</i> <i>gaitutzu, gaituzkitzu</i>
	2.dat.pl.	<i>zaituztet</i> <i>zaitzkitzuket</i>	<i>zauztet</i> <i>zauzkitzuet, zauztet</i>
Iragana	1.dat.sg.		<i>nitutzun</i> <i>nituzkitzun</i>
	2.dat.sg.		<i>zintutan</i> <i>zintuztan</i>
	1.dat.pl.		<i>gintutzun</i> <i>gintutzun</i>
	2.dat.pl.		<i>zintuzten</i> <i>zintuzten</i>

Azpieuskalki jatorra, Donibane Lohizuneko hizkera (Irizar, 1997: 286-290 eta 309).

Taulan ikusten den bezala, hirupertsonalen sailean **edun*-en adizkiak bakarrik jaso dira. Banaketa zaharretik, **eradun* nagusi zen, NORI 3. pertsona zenean izan ezik, **-i-* erabiltzen baitzen (Mounole & Gomez, 2018: 507). Ordea, Lapurdin berrikuntza hau hedatu den hizkera gehienetan, bipertsonalak aukera bakarra dira, beraz, **eradun* desagertu egin da. Arrangoitzen ordezkapena ez da erabatekoa izan (Irizar, 1997: 468). Urdazubin eta Zugarramurdin oraindik bi aukerak posible dira, nahiz eta bipertsonalak geroz eta arruntagoak diren (Montoya, 2003: 148).

Bährek (Irizar, 1992) 1924an ematen du fenomeno honen berri Irunen eta Hondarribian. Datu nahiko “irregularrak” jaso zituen, goiko Donibane Lohizuneko paradigmak erakusten duen erregulartasunarekin alderatuz gero. Irunen jasotako forma batzuk Hondarribian ez zituen jaso, eta alderantziz. Horrez gain, hirupertsonalen sailean batzuetan **edun* eta **-i-*ren formak jaso zituen, eta besteetan berriz forma bakarra, baina inoiz ez **edun* adizkiak soilik.

Nolanahi ere den, 1994an Artolak (Irizar, 1992) forma gehiago bildu zituen eta Irunen eta Hondarribian⁵ egiten dena, Donibane Lohizunen erakutsitako paradigmara hurbiltzen dela dirudi. (Ikus 2.taula).

2.taula. Irungo adizkiak.

		Bähr (1924)	Artola (1986)
Oraina	1.dat.sg.	<i>dirazu / nazu ttirazu / nazkizu</i>	<i>dirazu /na(u)zu dizkirazu , nazkizu</i>
	1.dat.pl.	<i>diguzu (baina gaittu, gattuzute) ttiguzu</i>	<i>gaittuzu (gaittu, gaittuzue) ga(i)ttuzu</i>
	2.dat.sg.	<i>dizut ttizut</i>	<i>zaittut / dizut dizut</i>
	2.dat.sg.	<i>dizutet ttizutet</i>	<i>zaittuztet / dizutet zaittuztet/ dizutet</i>
Iragana	1.dat.sg.	<i>nazun / zenidan nazkizun / zenittidan</i>	<i>nazun, zenidan/ ziazun nazkitzun / zenian</i>
	1.dat.pl.	<i>zeñigun / gattuzun zenittigun / gattuzun</i>	<i>gattuzun / zenigun gattuzun / zenigun</i>
	1.dat.sg.	<i>nizun nittizun</i>	<i>zaittuten/ nizun nizun / zaittuten</i>
	2.dat.pl.	<i>nizuten nittizuten</i>	<i>zaittuzten/ nizuten nizuen zaittuzten/ nizuten, nizuen</i>

Gipuzkoako azpieuskalkia, Irungo hizkera (Irizar, 1992: 391-395 eta 407-424).

Irizarren lanetik kanpo, 60ko hamarkadan Bidasoko istorio, kantu, esaerak, etab. biltzen dituen Alzolaren liburuan (1995) ere, Irungo 69 urteko emakume baten kontakizunetan, fenomeno honen adibideak topatzen dira: *Orain nik iltzeko sententziya*

⁵ Irungo adizkiak bakarrik aztertu ditut.

emango zaitut (9.), *azkuria ematen nau* (44.), *nik erákutsiko zátut* (47.), *jaunak esango nau* (175.), *ogiyak dena eran nau* (145.)

Bortziritara jotzen badugu, Beran *naute*, *nau zattut*, *zattuzte*, *gattuzte* ageri dira, hirupertsonalekin batera, baina badirudi oraineko singularreko formetara mugatzen dela. Etxalarren forma gehiago jaso dira (Irizar, 1992) (Ikus 3.taula).

3.taula. Etxalarko adizkiak.

		Gaminde 1985	
ORAINA	1.dat.sg.	<i>didazu/ nauzu</i>	<i>tiazu/ dizkiatzu</i>
	2.dat.sg.	<i>dizut/ zaitut</i>	<i>dizkizut/ tizut/ zaizkitzut</i>
	1.dat.pl.	<i>diguzu baina diguzue/ gaituzue</i>	<i>tiguzu/ dizkiguzu tiguzue/ gaitutzue</i>
	2.dat.pl.	<i>dizuet/ zaituztet/ zaiztet</i>	<i>dizuet/ dizkitzuet/ zaituztet</i>
IRAGANA	1.dat.sg.	<i>zenian</i>	<i>zenitian</i>
	2.dat.sg.	<i>nizun baina zaitun, zaitugun, zaizten</i>	<i>nizkizun zaizkitzun/zaitun/zaizten</i>
	1.dat.pl.	<i>zenigun</i>	<i>zenitigun</i>
	2.dat.pl.	<i>nizuen/ zaituzten</i>	<i>nituzuen/ nizkizuen/ nizuen</i>

Bortziritako azpieuskalkia, Berako hizkera, Etxalar (Irizar, 1992: 480-485).

Hiru eskualdeak alderatzen badira, mailakatze bat izan dela dirudi, eta Irun-Hondarribian eta Etxalarren ahulago ageri da. Irun-Hondarribiko bipertsonalen erabilerak, Lapurdiko sistemarekiko ezberdintasunak dituela deritzot. Lapurdin baldintza sintaktikoak betetzen direnean beti erabiltzen dira bipertsonalak. Irun-Hondarribian ez da horrelako erregularitasunik sumatzen, hutsuneak daude: *naute*, baina *ziaten / ziraten* eta ez *nauten* (Irizar, 1992: 416). Irungo taulan bertan badago adibide bat: *zaitut*⁶ da singularrean, baina pluralean *ttizut / dizut*.

⁶ Zu izenordaina morfologikoki plurala da. *Zaitut*-en ageri den *-it-* pluralgilea horren arrastoa litzateke. Hiru argumentu direnean **edun*-en adizkiak erabiltzean, pluralgilea ez da desagertzen.

Absolutiboa plurala denean, Lapurdin *nauzkitzu*, *zauzkitzuet*, *gaituzkitzu* bezalako formak erabiltzen dira. Fernández & Ezeizabarrenak (2001: 261) azaltzen dutenez, *-zki-* pluralgilea ez dagokio datiboko argumentuari, absolutibokoari baizik. Osagarri zuzena plurala denean, Irunen NORI 1. pertsona singularrean bakarrik ageri da pluralgile hau (Ikus 1.taula). Etxalarren berriz, NORI 2. pertsonan bada forma bakanen bat.

Dena den, oro har, pluralgilerik gabeko formak erabiltzeko joera dago. Iraganean berdin gertatzen da, honako hau dio Artolak pluralgilerik gabeko formez (Irizar, 1997: 434):

Hasieran pluraleko adizki guztiak singularrean eman zituen: *gaitutzu*, *gaituk*, *gaitun*, *gintutzun*, *gintunen*, etab... ; honek, noski, beste zenbait herritan ere (Donibane-Lohizune, Senpere eta Sara, kasu) adizki hauek horrela erabiltzeko joera ezaguna agerian ipintzen du, baina hori bai, ahalegin bat egitea eskatu diodanean, ia guztiak neke handirik gabe eman ditu.

Irunen joera hau indartsuago dela dirudi, **-i-*ren eta **edun-*en adizkietan gertatzen da. Absolutibo plurala denean ere, Fernández & Ezeizabarrenak (2001: 261-62) Lapurdin *Datibo bikoitzak* deituriko formak aipatzen dituzte: NORI 2. pertsona denean, datibo argumentuak absolutiboaren pertsona komunztaduraz gain, datiboarena ere jasotzen du. Hau da, datiboko argumentuak bi hizkiren bidez egiten du komunztadura laguntzailean. Horrela, *zauzkitzut* bezalako formak sortzen dira, *z-* hizkiak absolutiboko pertsona komunztadura egiten duela, eta *-tzu-* hizkiak berriz datibokoa azaltzen dute.

Iraganari dagokionez, Lapurdin **edun-*en iraganeko formak erabiltzen dituzte, baina Irun-Hondarribian ordea, oraineko forman oinarrituz eraikitzen dituzte iraganeko formak.

Irun-Hondarribitik Etxalarrera ere aldea badagoela iruditzen zait. Etxalarren maizago jotzen dute hirupertsonaletara, gehienbat osagarri zuzena plurala denean, edota iraganen. Hala ere, atentzioa eman dit datiboa 2. pertsona denean nahiko erregularra dela bipertsonalen erabilera. Osagarri zuzena plurala bada, Irunen eta Lapurdin bezala, gehienetan sinkretismoa gertatzen da, eta iragana, *-(e)n* gehituz egiten dute, Irunen egiten den moduan. Hiru eskualdeetatik, nire ustez Etxalarren ageri da ahulen fenomeno hau, zenbaitetan **-i-* aukera bakarra da.

Garrantzitsua da halaber, fenomeno honek Lapurdin **eradun*-en desagertzea eragin duela, baina lehen aurreratu dudan bezala, Irun-Hondarribian eta Etxalarren *dit/nazu* eta *dizut/zattut*, hirupertsonala nahiz bipertsonala erabiltzen dira.

Lapurdin fenomeno honek izan duen hedaduraz, Epeldek (2004: 293) hego-ekialdean ez dela ohikoa, eta muga Ezpeletan egon litekeela dio. Izan ere, hortik mendebaldera, Zuraidetik hasita, indar handiagoa baitu. Aturrialdeko Beskoitzera ere ez da hedatu fenomeno hau (Duhau, 2002). Hortaz, hego-mendebaldeko hizkeretara mugatzen da.

Zuazok (2014: 102) *nor-nori-nork* saileko adizkien ordeztasunak, *nor-nork* sailekoak Lapurdiko hego-mendebaldetik kanpo, Pasaia eta Irun bitartean ere erabiltzen direla dio, eta segur aski Lapurdin sortua izango dela adierazten du.

Berrikuntza honek ez du zaharra izateko itxura. Bonapartek XIX. mende amaieran Saran oraindik **eradun*-en adizkiak jaso zituen, hortaz, hirupertsonalen ordezkatzea beranduago gertatu bide zen: “ (...) Haren garaian adizki tripertsonalak ibiltzen ziren Saran; baita Schuchardten garaian ere eta honek zioenez emaztekiei bipertsonalak entzuten zizkien (1992 [1922]: 266). Barandiaran Saran izan zenean (1947) aldaera tripertsonal bakan batzuk baizik ez ziren entzuten eta egun bipertsonalak baliatzen dira (...)” (Camino, 2018: 109)

Irun-Hondarribian eta Bortzirietan XX. mendera arte ez dago agerraldirik. Corpusaren izaerak eragina izan lezake, eremu honetan, Lapurdin baino lekukotasun kopuru urriagoa jaso baitira eta gehienak dotrinak eta predikuak dira. Hortaz, zaila da XIX. mendean, eskualde hauetan fenomeno hau zertan zen jakitea.

Berrikuntza hau da eremu txikiena hartzen duena, Lapurdi eta Bidasoaldean hedatu da eta Zuazok esan bezala, Irun eta Pasaia artean ere bada zerbait. Berrikuntza honi buruz ari garela, orain arte bildutako lekukotasunek Lapurdira begira jartzen gaituzte, Bonapartek herri hauetan jaso baitzituen *nau* ‘dit’ erakoak, eta egun ere, bertan baitu indar handiena. Nire corpusean ere, fenomeno hau itsasaldeko Urruña eta Ziburuko gutunetan jaso dut.

5. ONDORIOAK

Hasieran esan bezala, Irun-Hondarribiko, Bortzirietako eta Lapurdiko hego-mendebaldeko testuak aztertu, eta hiru eskualdeek partekatzen dituzten lau berrikuntza azaltzen saiatu naiz. Berrikuntza hori testuetan noiz islatu den lehen aldiz azaldu, zein baldintza gramatikal bete behar diren hau gertatzeko, eta azkenik zein hedadura izan duten zehazten saiatu naiz.

Bidasoaldeak eta Lapurdiko hego-mendebaldeak historikoki izan duten harremana ezaguturik, hizkuntzan zein eragin izan duen aztertzea izan da nire asmoa. Caminok (Ikus 13. orria) esan bezala, hiru eskualdeetako testuetan garai berean, eta modu berean berrikuntza hauek agertzea, geografikoki ondoan egonda, hiztun erkidego hauek harremana izan dutelako da, elkarri entzun eta kopiatu diotelako.

Lanari bukaera emateko, berrikuntza bakoitzaren inguruan ondorio nagusi batzuk emango ditut, baina lehenik eta behin, esan beharra dut testu zaharrekin lan egiteak duen zailtasunaz jabetu naizela. Testuek erakusten dutena interpretatu, eta ondoren hizkera horretan ezaugarriak duen garrantzia erabaki, eta era berean, ingurukoekin alderatzea, lan konplexua da. Horregatik, kontziente naiz lan honen mugez, eta nire saiakeraz.

Epentesiak Euskal Herriko herri askotan entzuten dira, baina aztergai den eremuari dagokionez, bilakabide hauek hiru hizkerak ezaugarri honetan bide beretik doazela adieraz lezaketela deritzot. Hizkera bakoitza dagokion azpieuskalkian kokatuz gero, Lapurdiko itsasaldean ez genituzke epentesiak esperoko. Nafarroan ere, Bortzirietatik haratago bilakabide hauek hedatu badira ere, Bortzirietan dute indar handiena. Horrez gain, Euskal Herriko erdigunean sortutako berrikuntza hauek Lapurdiko itsasaldera hedatu izanak, erdigunearekin izan duen lotura adierazteaz gain, itsasaldeko eta barnealdeko hizkerak desberdintzen dituen ezaugarritzat har daitezkeela esango nuke. Hortaz, itsasaldea Lapurdin, eta Bortzirietan Nafarroan, berritzaile dira ezaugarri hauekiko eta erdigunera hurbiltzen dira.

Izen-morfologian, berezia da absolutibo pluralaren gainean eraikitako erakusle genitiboa. Ezaugarri honetan ere, bat egiten dute lehen testuetatik. Ondoko mendeetan, Lapurdiko testuetan erakusle datibo eta inesiboen adibideak jaso dira, eta Bidasoaldean datibo eta destinatiboaren adibideak daude. Denborak aurrera egin ahala, zehar kasu

gehiagotara hedatu da analogia, eta egun, hiru eskualdeetan, 2.graduko erakusleetara ere hedatu dela ikusi dugu. Berrikuntza hau Nafarroako inguruko hizkeretan ere ageri da, eta Lapurdin, itsasaldeaz gain, barnealdeko herriak ere hartzen ditu. Hortaz, Nafarroako ipar-mendebalde eta erdialdea, eta Lapurdi batzen ditu berrikuntza honek.

Aditz-morfologian, adizki sinkopatuek hedadura handia dute. Baina ikusi bezala, Nafarroako testu zaharretan 1750 baino lehen agerraldi gutxi dira. Irun eta Bortzirietako testuetan ezaugarri hau XVII. mendean berria izan litekeela dirudi, eta Lapurdin berriz, ordurako erabiltzen dira. Hortaz, Reguerorekin bat eginez, Irun-Hondarribiak eta Bortziriek lehen testuetan sinkopadun aditzak agertzea, Lapurdiko eraginarekin lot daitekeela esango nuke.

Azkenik, hirupertsonaletako ordezkatzeari, Lapurdin agertzen dela indartsuen esango nuke. Irun-Hondarribian eta Etxalarren, maila apalagoan erabiltzen dira **edun*-en adizkiak. Herri hauetan hirupertsonalei eutsi diete, eta gainera, askotan aukera bakarra direla dirudi. Lapurdin aldiz, **eradun* desagertu egin da. Hedadura murrizten duen ezaugarria da. Irunetik ezkerrera zerbait baden arren, Lapurditik kanpo, Irun-Hondarribia eta Bortziriek artean gertatzen da Donibane Lohizunen ikusi dugun sistematikotasunaz. Hortaz, aurkeztu diren berrikuntzen artean, adierazgarriena izango litzatekeela deritzot.

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, F. & Miranda, P. (1995). "Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721)". *ASJU*, 29, 527-544.
- Alzola, N. (1995). *Euskaraz, Irunen barrena*. Luma: Irun.
- Arozena, F. (1958). "Paper zaarretan begira". *Egan XIII*, 145-146.
- Bonaparte, L. (1877). *Observations sur le bosque de Fontarabie, d'irun. etc.*, Paris.
- Camino, I. (2004). "Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian". *Euskera* 49, 67-102.
- Camino, I. (2008). "Dialektologiaren alderdi kronologikoaz". *FLV* 108, 209-247.
- Camino, I. (2013). "Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia". in Gómez, Gorrotxategi, Lakarra eta Mounole (arg.), 77-140.
- Camino, I. (2018). "Hizkuntza ospareen eta eragin lektalaren zirurikak Ipar Euskal Herriko jende mintzo eta idazkietan". *ASJU*, 52, 93-131.

- Donostia, J. A. (1934). "Textos euskéricos del siglo XVIII". *RIEV* 25, 688-695.
- Duhau, H. (2002). *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Akoka: Donibane Lohizune.
- Egaña, M. (1998). 1844-1853 lapurteraz idatzitako gutunak. In *Antoine d'Abbadie, 1897-1997: congrès international (Hendaye, 1997)*. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia: Donostia & Bilbo. 493-502.
- Elosegi, X. (2018). *Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII.mendean*. Lapurdi 1609 elkartea: Senpere.
- Epelde, I. (2004). "Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz". *FLV* 96, 271-303.
- Euskaltzaindia (2008-2018). *Euskal Herri Hizkeren Atlasa*. 10 liburuki, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Fernández, B. & Ezeizabarrena M. J. (2001). "Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean". In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.) *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*, Iker 14-1. Euskaltzaindia: Bilbo. 255-278.
- Ibarra, O. (1994). *Ultzamako hizkeraren azterketa*. Doktore tesia, UPV-EHU.
- Idoate Ezquieta, C. & Villanueva Equiza, J.J., (1981). "Unas ordenanzas de Vera en vascuence". *FLV* 37, 275-281.
- Iñigo, P. (1980). "Bortzirietako erakusleez". *Euskera XXVI* (2.aldia), 43-46.
- Irigarai, A. (1972). "Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S. J. de Luz al de Vera (de 1788)". *FLV* 12, 345-351.
- Irizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro sepetrional* (2 liburuki). Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia: Iruñea.
- Irizar, P. (1997). *Morfología del verbo auxiliar labortano: (estudio dialectológico)*. Euskaltzaindia & EHU: Iruñea.
- Letamendia, A. & Sagarzazu, T. (1992). *Hondarribiako hizkera Roque Jacinto Salazarren predikuan 1778*. Iker 7. Euskaltzaindia: Bilbo. 497-533.
- Montoya, E. (2003). *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Doktore tesia, UPV-EHU.
- Mounole, C. & Gómez, R. (2018). "Lekukotasunen azterketa". Gorrochategui, J., Igartua, I. & Lakarra, J. (arg.). *Euskararen Historia*. Eusko Jaurlaritz: Gasteiz, 490-527.
- Ondarra, F. (1981). "Hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetako euskal gutun ezezagunak". In *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Iker 2. Euskaltzaindia: Bilbo. 475-489.

- Ondarra, F. (1987). “Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII”. *FLV* 50, 281-316.
- Ondarra, F. (1990). “Irun eta Hendaian emandako bi euskal prediku (1831-1832)”. *Bidasoako Ikaskuntzen Adizkaria* 7, 7-37.
- Padilla, M., “*Le Dauphin* itsasontziko gutuneria (1757) edo euskararen historia behetik”, *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 2 | 2015, Sarean emana--- an 25 juillet 2016. Kontsulta-data [2020/04/15]. <<http://journals.openedition.org/lapurdum/2553>>
- Padilla, M., & Videgain, X. “*Le Dauphin*: euskarazko gutunak (1757)”, *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 2 | 2015, Sarean emana--- an 01 septembre 2016. Kontsulta-data [20/04/15]. <<http://journals.openedition.org/lapurdum/2561>>
- Reguero, U. (2017). “Etxalarko Sanzberroren dotrina”. *FLV* 124, 355-367.
- Reguero, U. (2017). *Goi- nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*. Doktore tesia, UPV-EHU.
- Sagarzazu, T. (2005). *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Alberdania: Irun.
- Sarasola, I. (1983). “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”. *ASJU*, 17, 69-212. Urruña 132-137 eta Eizalde 137-142.
- Satrustegi, J.M. (1979). “Plática vasca del año 1778 en un proceso de Fuenterrabía”. *FLV* 32, 287-302.
- Satrustegi, J.M. (1987). *Euskal Testu Zaharrak (I)*. Euskaltzaindia: Bilbo. Lesaka 247-261, Sara 133-136 eta Donostia 111-115.
- Urrizola, R. (2006). “Tres cartas escritas por un ferrón de Bera”. *FLV* 102, 255-269.
- Zelaieta, E. (2004). “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)”. *FLV* 96, 223-248.
- Zelaieta, E. (2005). “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”. *FLV* 99, 287-306.
- Zelaieta, E. (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Euskaltzaindia: Bilbo.
- Zuazo, K. (1998). “Euskalkiak, gaur”. *FLV* 78, 191-233.
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Elkar: Donostia.